# MENDITXIKI-NAFARROA CASTILDETIERRA

Erribera kontrastez betetako lurraldea da. Batetik, Ebro ondoko lur emankorren barazki ederren lur sail handiak ikus daitezke eta bestetik, Nafarroa eta Aragoi artean zabaltzen den Bardeako basamortuan haizeak higatutako bide, zulo, aldapa eta mendi muinoek osatzen duten paisaia harrigarria bezain liluragarria. Estepa itxura duen Bardeako paisaia eder hau bitan banatu ohi da: Zuria eta Beltza. Bardea Zuria lautada idorra da, pitzatua, gatz eta buztin argiak, haizeak eta uraren higiduraren ondorioz erliebe bitxia duena, kasik landaretzarik gabe. Bardea Beltzean, berriz, lurra ilunagoa da eta pinu mediterraniar baso ugari ikus daitezke. Landaretza ere ugariagoa da.. Bardeak, Euskal Herriko basamortua dela esan ohi da.

Mendizaletxikiak erraldoiarekin hizketan




TESTU ETA ARGAZKIAK

Mikel Arrizabalaga
(Donostia-Gibar, 1957)


Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.

Higaduraren eraginez tximinia itxura duen mendixkaren ondoan dagoen aparkalekuan emango diogu hasiera ibilaldiari. Barranco de las Cortinas aldera jarraitu eta, eskuinerantz joko dugu hormen artean zabaltzen den bidetik. Pista zeharkatu eta berriro murgilduko gara sakanean, eskuin aldetik aurrera eginez. Zelai berdera ateratzean, Cabezo de las Cortinillas gertuago ikusiko dugu. Errege Bardeako paisaia tipikoa irudikatzen duen gainalde eder honetara gerturatzean, eremu militarraren mugak adierazten duen kartela ikusiko dugu. Oso garrantzitsua eremu horretan ez sartzea eta mendigunetik gertu aurrera egitea.



Barranco de las Cortinas zeharkatuz



Aitzina jarraituko dugu bide estu eta lasai batetik eta, minutu batzuk igaro eta gero, gure eskuinera eskailera batzuk ikusiko ditugu. Horietatik gora eginez gero, Cabezo de las Cortinillasera helduko gara. Ez gara damutuko, goitik Errege Bardeako Parke Naturalaren bista ederrak daude eta. Igotako lekutik atzera egin eta berehala, aparkaleku batera iritsiko gara. Jarraian, bidea gurutzatu eta, bidezidorraren ondoan dagoen Tripako etxolara iritsiko gara.

Xendan zehar aurrera egingo dugu Cortinillasen ondoraino, erliebe polit baten azpian dagoen laku txikia. Hau inguratuz, zuzen jarraituko dugu Balsa de las Cortinasen ondora ailegatzeko. Ikusgaitz den xendatik, ihien artean ezkutaturik dagoen urmaela agertuko zaigu, aurrekoa baino handiagoa. Bere ondotik ibiltzen segituko dugu ibilgailuentzat egokitutako pista zabalera atera arte. Castildetierra gertu ikusi eta harantz zuzenduko ditugu gure urratsak. Bertara heltzean, segalariaren monumentua ikusiko dugu.




LUZERA: 5,8 km
DESNIBELA: 78 m